

eurodimentsioa

eurodimentsioa



hezkontzan



## HEZKUNTZAREN EURODIMITSIOA ( HED)

Europar Batasuna eraikitzekeo prozesuaren garapenari erreparatuta, begi bistan dago arrazoi politiko eta ekonomikoak izan zirela batasun horren suspertzaileak. Argi dago, beraz, hezkuntzari ez zitzaiola merezi duen garrantzia eman. Baina urteak joan, urteak etorri, Europar Batasuna eraikitzekeo prozesuari kritikak egin zaizkio; horra hor, esaterako, Europagintzan hezkuntzak eta kulturak erabatekeo garrantzia izan beharko luketelako iritziak.

Ildo horretatik abiatuta, Europar Batasuna den eremu sozioekonomiko eta politiko berri hori eratzeko, hiritartasun berri baten edukiak ikasi/irakatsi behar direlako uste sendoa dago alde batetik, eta bestetik, herri bakoitzeko hiritarrak, eremu komun horretako partaidea izateko, irakaskuntzaren bitartez trebetasun berriak eskuratu behar dituelako ustea.

Europartasuna, Europar Batasunarekiko estimua eta haren ezagutza bultzatzeko asmoa, guztiz beharrezkoa bihurtu zaigu eraikitzekeo prozesu honetan. Horrela, behar horrek dimentsio berria ematen dio gure jarduerari, **eurodimentsioa**, hezkuntza sistemek, euren beste dimentsioez gain, barneratu behar duten zehar lerroa, europartasuna baitaratzen duena: *Hezkuntza European, Hezkuntza Europaz, Hezkuntza Europarako* ( Stobart, 1991)

### HED HEDATZEKO PAUSOAK

Hezkuntzako ministroen lehenbiziko bilera. Erabakia: Hezkuntza lankidetzarako politika hastea

1974-1976 Ebazpenak: Lankidetzarako zenbait arlo identifikatu eta **Hezkuntza Batzordea** sortu. Horren barruan, Hezkuntza Ministerioen ordezkariak eta Europako Batzordekoak daude.

1976ko Ebazpena: Lankidetzarako esparru-egitaraua zehazten da; hor azaltzen da estreinakoz **Hezkuntzaren eurodimentsio** (HED) kontzeptua.

1986 Lehenbiziko hezkuntza-programa europarrak:

- ARION
- EURYDICE
- ERASMUS
- COMETT
- LINGUA
- TEMPUS...

1988 Batzordearen eta Hezkuntzako ministroen Ebazpena HEDi buruz.

1992 Europar Batasuna /Maastricht-eko Tratatuak:

- *Erkidegoak kalitatezko hezkuntza garatzeko lan egingo du, Erkidegoko estatuen arteko lankidetzara sustatuz, eta behar izatekotan, haien egintza sostengatuz eta osatuz, betiere, irakaskuntzaren edukien antolamendua, hezkuntza-sistemarekiko zein kultura eta hizkuntza aniztasunarekiko norberaren erantzukizunak errespetatuz.*

- *Erkidegoaren egintzak honako helburuak lortu nahi ditu:*
  - Eurodimentsioa sustatzea irakaskuntzan, batez ere Erkidegoko estatuen hizkuntzen ikaskuntza eta hedapenaren bitartez.
  - Ikasle eta irakasleen mugikortasunaren alde egitea, tituluen onarpen akademikoa zein ikasketaldiena sustatuz bereziki.
  - Ikastetxeen arteko lankidetzaren bultzatzea.
  - Erkidegoko estatuen prestakuntza sistemari buruzko informazio eta esperientzia trukea areagotzea.
  - Gazteen eta gizarte hezkuntzetako eragileen trukeak sustatzea.
  - Urrutiko hezkuntza sustatzea.

II. titulua, G artikulua, 36. atala

1993 *Hezkuntzaren Eurodimentsioaren Liburu Berdea*. Bertan HEDen marko legala sortzen saiatzen da, hor gauzatzen baitira hezkuntza-politikaren ekimenak, helburuak, eragileak, estrategiak eta prozedurak. Hona hemen liburuak zer dioen:

*Eskolak, beste gauza batzuen artean, eginkizun orokorra du guztion aukera-berdintasunean laguntzea; gazteei gizarte solidarioan erantzukizun zentzua ematen; autonomia-ahalmena, irizpen ahalmena, zentzu kritikoa eta berrikuntzarena garatzen; bereziki, bizitzan zehar ikasten ikasteko gustua garatzen eta biziera aktiboan integratzea erraztuko dizkieten prestakuntza ematen (helburu orokorra).*

*Aipatutako helburu orokorrei begira, komenigarria da berariazko helburuak zehaztea, eta horrekin batera, Erkidegoaren ekintzaren "balio erantsia":*

- *Europar hiritargoaren garapenean laguntzea.*
- *Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko aukerak eskaintzea.*
- *Gazteak prestatzea gizarteratze eta lanbideratze hobea izateko.*

1994 Socrates: Europako Hezkuntza-programak.

2000 Kontseilu Europarraren bilera Lisboan:

*Erronka: Europar Batasuna ezagutzen oinarritutako munduko ekonomia lehiakor eta dinamikoena bihurtzea.*

Horretarako, Batzordeak Hezkuntza eta prestakuntza iraunkorreko arloko lankidetzaren politikoa berrindatu du. Horren asmoa da hezkuntza sistemen kalitatea hobetzea, hezkuntza eta prestakuntzarako guztion sarbidean laguntzea, eta gainerako munduari norberaren hezkuntza sistematik eta prestakuntzarenak irekitzea.

## HEZKUNTZA-SISTEMA AUNITZ BATERATZEKO BIDEAN

Europar Batasunaren proiektuak, bateratze-prozesua den heinean, partaideen hezkuntza-sistemen azterketa eta konparaketa dakar berekin, herri partaideek banatzen dituzten tituluen homologatze eta onartze aldera. Aunitz dira hezkuntza sistema horien arteko aldeak: eskola-egunen kopuruak, programak, etapak, hizkuntzen tratuak eta abar, baita HDE barneratzeko era ere. Baina argi dago Europar Batasunak ezin duela ahaztu irakaskuntza sistemen oinarri komunak bilatu egin behar direla. Horretarako dago, esaterako, TUNE programa, estatu partaideen goi mailako ikasketen **baliokidetasunaren** xerka abiatuta dagoena, hainbat eztabaidaren artean.



Testuinguru honetan ulertu behar ditugu, halaber, ikasketei buruzko **kalitatezko programak**. Horrela, ikasketek nazioartean/Europan onargarria den maila duten ala ez egiaztatzen da, etorkizunean eremu politiko-administratibo osoan ikasketak homologatu ahal izateko. Hori dela eta, baliozkotasun hori dugu kalitatezko programen helburuetako bat.

HED **curriculumari dagokionez**: Ohiko edukiak izateaz gain, europar dimentsioa zabaltzeko tresna dira. Bertako irakasgaietan HED bi norabidetan gauzatuko da. Alde batetik, geuretik abiatuta, landu behar ditugun **erreferente kultural komunak** daude, eta bestetik, hiritartasun berriaren **jarrera eta balioak**, betiere Europako kulturak elkar aberasteko asmoz.



Europar Batasuneko partaideen hezkuntza politikak eta HEDen inguruko trataera ikusteko Eurydicera jo behar da, hor kokatuta baitago Europar Batasuneko hezkuntza-sistemen ataria.



[http://www.eurydice.org/accueil\\_menu/en/frameset\\_menu.html](http://www.eurydice.org/accueil_menu/en/frameset_menu.html)

## MUGIKORTASUNA ETA TREBETASUN BERRIAK

Europar Batasuna barne mugarik gabeko esparrua izateak hiritarren mugikortasuna errazten du, ikasteko edota lana bilatzeko orduan. Izan ere, aukera horiek eremu askoz handiagoan zabaltzen dira, baina horietaz hobeto profitatu ahal izateko, egokiagoa litzateke ikasleek oinarritzko **trebetasun berriak** menperatzea:

- **Hizkuntzak**: Europar Batasuna kultur eta hizkuntza anitzeko esparrua da. Horregatik, hezkuntza sistemek bigarren eta hirugarren hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko programak, planak edo ekintzak burutzen dituzte.
- **Informazio eta komunikaziorako teknologia berriak (IKT)**: Globalizazio garai honetan IKTak menperatu behar dituzte gure ikasleek gizarteratze egokiagoa lortzearren. Gainera, teknologia horiei esker, urrutiko irakaskuntza errealitate sendoago bihurtzen zaigu, prestakuntzaren iraunkortasuna indartzen den heinean.
- **Giza trebetasunak**: Gaitasun sozialak eta komunikaziozkoak dira. Lankidetzarako hiritarrak behar ditu Europar Batasunak, eta horrek berariazko giza trebetasunak eskatzen dizkie hiritarrei.
- **Bizitzan zeharreko hezkuntza**: Ikasle edota hiritarrak egoera berrietan ahalik eta ondoen moldatzeko eskuratu behar dituen trebetasunak menperatzeko jarrerari eutsi egin behar zaiolako ustea dago. Administrazioek bizitzan zeharreko ikaskuntzaren alde egin behar dute. Horretarako, IKTen bitartekoak erabiliz, urrutiko irakaskuntza berrindartzen da eta prestakuntza iraunkorraren ildotik ekimenak antolatzen dituzte.